**Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpena; horren bidez, Lehendakariaren martxoaren 26ko 16/2021 Dekretuan (martxoaren 6ko 13/2021 Dekretua aldatzekoa) aurreikusten diren neurrien aplikazioaren eraginpean dauden udalerrien zerrenda ebazten da.**

Lehendakariaren martxoaren 26ko 16/2021 Dekretua, 2021eko martxoaren 27ko 62. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da. Dekretu horrek martxoaren 6ko 13/2021 Dekretua aldatu du, prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratzekoa, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiaraztekoa.

Dekretu honek idazketa berria ematen die martxoaren 6ko 13/2021 Dekretuaren zenbait artikuluri, eta neurri batzuk ezartzen ditu azken 14 egunetan Covid-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo gehiagokoa duten udalerrietarako.

Neurri horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean pertsonak sartu eta irteteko mugari, ostalaritzari eta jatetxeei, kirolari eta joko eta apustuen lokalei buruzkoak dira.

Hori dela eta, dekretu horretan ezarritakoa betetzeko, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren (apirilaren 11ko 80/2017 Dekretua) 9. artikuluak esleitzen dizkidan funtzioen arabera,

**HONAKO HAU EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.** – Argitaratzea Covid-19ak eragindako kasu positiboen azken 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo handiagoa duten lurralde historikoen zerrenda.
Gaur egun, lurralde historiko batek ere ez du baldintza hori betetzen

**Resolución de la Directora de Salud Pública y Adicciones por la que determina la relación de municipios afectados por la aplicación de las medidas previstas en el Decreto 16/2021, de 26 de marzo, del Lehendakari, de modificación del Decreto 13/2021, de 6 de marzo.**

El Decreto 16/2021, de 26 de marzo, del Lehendakari, que modifica el Decreto 13/2021, de 6 de marzo, de primera refundición en 2021 en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, ha sido publicado en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 62, de 27 de marzo de 2021.

Este decreto da una nueva redacción a diversos artículos del Decreto 13/2021, de 6 de marzo, imponiendo diversas medidas en aquellos municipios que presenten una tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días, igual o superior a 400 por cada 100.000 habitantes.

Dichas medidas se refieren a la limitación de entrada y salida de personas en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a la hostelería y restauración, al deporte y a los locales de juegos y apuestas.

Por ello, y en cumplimiento de lo establecido en el citado decreto y en virtud de las funciones que me vienen atribuidas por el artículo 9 del Decreto 80/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud,

**RESUELVO:**

**PRIMERO.** – Dar publicidad la relación de Territorios Históricos cuya tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días iguala o supera la cifra de 400 por cada 100.000 habitantes:

Actualmente ninguno de los Territorios históricos cumple la condición

**BIGARRENA. –** Argitaratzea Covid-19ak eragindako kasu positiboen azken 14 eguneko intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 400 edo handiagoa duten 5.000 biztanletik gorako udalerrien zerrenda. Honako hauek dira udalerriak: **Beasain, Elorrio, Ermua, Lazkao, Muskiz, Ondarroa, Ordizia, Urretxu.**

**HIRUGARRENA. –** Onestea, ebazpen honen eranskinean islatutako parametro epidemiologikoek dakartenarekin bat etorriz, Lehendakariaren martxoaren 26ko 16/2021 Dekretuan ezarri diren neurriak aplikatzeko beharra duen egoera epidemiologikoa bizi duten 5.000 biztanletik beherako udalerrien zerrenda:
**Ataun, Berriz, Elciego, Elvillar/Bilar, Idiazabal, Iruña Oka/Iruña de Oca, Olaberria, Urkabustaiz, Zaldibia, Zegama, Zigoitia.**

**LAUGARRENA. -** Ebazpen hau 2021eko martxoaren 29an –astelehena– 00:00etan sartuko da indarrean, eta honen ondorioak indarrean egongo dira, harik eta hurrengo ebazpena eman arte, Lehendakariaren martxoaren 26ko 16/2021 Dekretuan aurreikusten diren baldintzetan eta maiztasunean.

**BOSGARRENA**.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Osasun Sailburuordetzan, hilabeteko epean, Osasun Sailaren web-orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

**SEGUNDO. –** Dar publicidad la relación de municipios de más de 5.000 habitantes cuya tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días iguala o supera la cifra de 400 por cada 100.000 habitantes. Dichos municipios son los siguientes: **Beasain, Elorrio, Ermua, Lazkao, Muskiz, Ondarroa, Ordizia, Urretxu**.

**TERCERO. –** Aprobar, de acuerdo con los parámetros epidemiológicos reflejados en el anexo a esta resolución, la relación de municipios con una población inferior a 5.000 habitantes y cuya situación epidemiológica requiere la aplicación de las medidas establecidas en el Decreto 16/2021, de 26 de marzo, del Lehendakari:
**Ataun, Berriz, Elciego, Elvillar/Bilar, Idiazabal, Iruña Oka/Iruña de Oca, Olaberria, Urkabustaiz, Zaldibia, Zegama, Zigoitia.**

**CUARTO. -** Esta resolución entrará en vigor a las 00:00 horas del lunes 29 de marzo de 2021 y mantendrá sus efectos hasta que sea sustituida por otra posterior que se dicte en los términos y con la periodicidad prevista en el Decreto 16/2021 de 26 de marzo del Lehendakari.

**QUINTO.-** Esta resolución, que no agota la vía administrativa, podrá ser recurrida en alzada ante el Viceconsejero de Salud en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Salud.

Gasteiz, 2021eko martxoaren 27a
En Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2021

Sin. / Fdo.: **Itziar LARIZGOITIA JAUREGUI**
OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA
DIRECTORA DE SALUD PÚBLICA Y ADICCIONES

# ERANSKINA. 14 EGUNEAN METATUTAKO INTZIDENTZIA-TASA 100.000 BIZTANLEKO 400 BAINO HANDIAGOA DUTEN UDALERRIEI BURUZKO INFORMAZIOA

**2021ko martxoaren 26ko datuak**

## 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak

| UDALERRIA / MUNICIPIO | Tasa |
|---|---|
| Beasain | 841,59 |
| Elorrio | 725,03 |
| Ermua | 749,11 |
| Lazkao | 1047,59 |
| Muskiz | 427,86 |
| Ondarroa | 583,63 |
| Ordizia | 953,33 |
| Urretxu | 453,95 |

## 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak

| UDALERRIA / MUNICIPIO | Tasa | Casos en los últimos 7 días | Tasa UAP |
|---|---|---|---|
| Ataun | 1659,99 | 12,00 | 1143,12 |
| Berriz | 493,35 | 18,00 | 414,10 |
| Elciego | 2318,84 | 19,00 | 492,61 |
| Elvillar/Bilar | 1420,45 | 5,00 | 492,61 |
| Idiazabal | 420,17 | 6,00 | 767,87 |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | 1002,79 | 32,00 | 699,45 |
| Olaberria | 1090,51 | 6,00 | 1143,12 |
| Urkabustaiz | 620,69 | 5,00 | 432,90 |
| Zaldibia | 1869,72 | 27,00 | 883,95 |
| Zegama | 1775,15 | 15,00 | 767,87 |
| Zigoitia | 585,82 | 5,00 | 432,90 |

Honako hauek dira 5.000 biztanletik beherako udalerrietan zerrenda zehazteko erabili diren irizpide epidemiologikoa:

- Azken 14 egunotan Covid-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua udalerrian 400ekoa edo handiagoa izatea 100.000 biztanleko.
- Azken 14 egunotan Covid-19aren kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua udalerriari dagokion oinarrizko osasun-eremuan 400ekoa edo handiagoa izatea 100.000 biztanleko.
- Udalerrian Covid-19aren kasu positiboen kopurua azken 7 egunetan 4 baino gehiago izatea.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**OSASUN SAILA**
Osasun Sailburuordetza
*Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SALUD**
Viceconsejería de Salud
*Dirección de Salud Pública y Adicciones*

- **ANEXO. INFORMACIÓN RELATIVA A MUNICIPIOS CON INCIDENCIA ACUMULADA EN 14 DÍAS SUPERIOR A 400 CASOS POR 100.000 HABITANTES**

**Datos correspondientes al día 26 de marzo de 2021**

## Municipios de más de 5000 habitantes

| UDALERRIA / MUNICIPIO | Tasa |
|---|---|
| Beasain | 841,59 |
| Elorrio | 725,03 |
| Ermua | 749,11 |
| Lazkao | 1047,59 |
| Muskiz | 427,86 |
| Ondarroa | 583,63 |
| Ordizia | 953,33 |
| Urretxu | 453,95 |

## Municipios de menos de 5000 habitantes

| UDALERRIA / MUNICIPIO | Tasa | Casos en los últimos 7 días | Tasa UAP |
|---|---|---|---|
| Ataun | 1659,99 | 12,00 | 1143,12 |
| Berriz | 493,35 | 18,00 | 414,10 |
| Elciego | 2318,84 | 19,00 | 492,61 |
| Elvillar/Bilar | 1420,45 | 5,00 | 492,61 |
| Idiazabal | 420,17 | 6,00 | 767,87 |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | 1002,79 | 32,00 | 699,45 |
| Olaberria | 1090,51 | 6,00 | 1143,12 |
| Urkabustaiz | 620,69 | 5,00 | 432,90 |
| Zaldibia | 1869,72 | 27,00 | 883,95 |
| Zegama | 1775,15 | 15,00 | 767,87 |
| Zigoitia | 585,82 | 5,00 | 432,90 |

Los parámetros epidemiológicos utilizados para determinar la lista de municipios de menos de 5.000 habitantes son:

- Tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días igual o superior a 400 por cada 100.000 habitantes en el municipio.
- Tasa de incidencia acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días igual o superior a 400 por cada 100.000 habitantes en la zona básica de salud correspondiente al municipio
- Número de casos positivos en el municipio por Covid-19 durante los últimos 7 días superior a 4.